

SARRERA ETA AURKEZPENA

Hutsune handia ikusten dugu Tutoretza Programazioetan . Ez daude Programazio zehatzak, sekuentziatuak, ebaluatzeko tresnekin...eta abar. Askoz gutxiago hezkidetzaren ikuspuntua bermatzen dutenik, eta askoz gutxiago ere euskaraz daudenik. Egoera hori ikusita , interesgarria iruditu zitzaigun honelako programazioa egiten hastea.

Kontuan izan ditugu irizpide hauek lanean aritzeko:

- Gure helburuak lortzeko *proiektuetan* erabiltzen diren metodologia anitzak lagungarria izan daitezke.
- Jardueren artean, filmaren baten hezkidetzaren ikuspuntutik egindako trataera sartzeari. Horrekin lotuta ez legoke ere gaizki egongo ikasleek gehien ikusten dituzten Tbko programen inguruan jardueren bat egitea.
- Jarduerekin batera garrantzitsua da irakasleentzako lagungarriak izan daitezkeen jarraibideak adieraztea. Askotan eraginkorragoa izaten da jardueraren egiteko modua (eta horren barruan curriculum izkutua) jardueraren bera baino.
- Martxoak 8rako zerbait egitea.
- Ebaluazioa zaintzea. Oso material gutxietan agertzen dira ebaluaziorako tresnak eta Tutoretzan egiten dena askotan ez dugu ebaluatzen. Hemen ardatza nor bere burua ebaluatzea izango da .

Programaren helburu orokorrak

1. Norbere boterea eta autoritatea erabiltzen jakin

2. Norbere bizitzaren protagonista izan

Hiru ataletan bereiztu ditugu gaiak hiru ikasturtetan egiteko

Elkar ezagutzen dugu. (2002-2003)

- Norberaren aurkezpena
- Elkar ezagutzea
- Norberarenak eta besteen emozioak identifikatzea
- Norberaren eta besteen akatsetatik ikastea
- Gelaren antolamendua
- Arduren banaketa.....

Gure arteko harremanak(2003-2004)

- Norbera eta besteen emozioak identifikatzea
- Jarreraren analisia
- Gatazken trataera
- Arautegia
- Hezkidetzaren komunikazioa
- Norberarenak eta besteen akatsetatik ikastea
- Elkar erantzukizuna. Konpromisoak hartzea

Nire burua zaintzen (2004-2005)

- Norberaren gorputza ezagutzea
- Ezberdintasunen balorazioa
- Ohitura osasuntsuak hartzea (elikadura, ariketa fisikoa, barre egitea, atsedenaldirak.....)